

JERUSALEM: BOST EGUTEGITAKO HIRIA

Ezaganak ditugu **Arantzazuko Egutegia** eta antzekoak, egunero orritxo bat kenduz, urtearen joana erakusten digutenak. Horietako bat atera ohi du Lurralde Santuko Frantziskotarren Kustodiak ere: **Almanaco di Terra Santa** du izena.

Baina Almanaka honen gauzarik bitxiena zera da: ez duela egutegi bakarra ematen, bost egutegi baizik aldi berean. Lerro hauek idazten ari naizen honetan, esate baterako, 1989ko Urtarrilaren 21a de Euskal Herrian segitzen dugun egutegian, Egutegi Gregorianoan alegia. Baina Egutegi Julianoan --Greziar Ortodoxoek segitzen duten horretan, 1989ko Urtarrilaren 8a da; Koptoen egutegian, berriz, 1705eko **Tubah**-ren 13a; Islamiarren egutegian **Jumada al-Akhara**-ren 13a da, baina 1409. urtekoa; azkenik, Hebraiarren egutegian 5749. urtea da, **Shebat**-aren 15a.

Egutegi guzti horiek daude indarrean aldi berean, esate baterako, Jerusalem-en. Boste egutegi ezberdinetan bizi da hemengo gizarte, hiri berean.

Egutegien misterioa

Etnografoek Herrien pentsaera eta biziera deskribatzen dituztenean, egutegiaren kapitulua izan ohi da jakingarrietakoa. Herri guztiak (guztiak?) eguzkiaren eta ilargiaren (bien nahiz bataren ala bestearen) erritmoetan oinarritu izan dira danbora zatitzeko. Hortik sortu dira urbetea, ilabetea, astebetea eta "*egunbetea*", denboraren neuri gisa; ez dira, ordea, banaketa ba-

karrak. Eta horien hasierak neurriak eta bukaerak ere ez dira inola ere berezkoak, historian eta munduan zeharreko egutegi guztiei begiratzen baldin badiegu.

Erljioari eta erlijioizunaren erritmoari lotuta joan ohi da gehienetan egutegia. Erlikiozko jaiek eta erritmoen berrikintzek markatu izan dute funtsean denboraren erritmoa. Agian alde-rantziz da; baina dena dela, erlijioek sagaratu nahi izan dute beti denboraren misterioa eta horren joanera etengabea nolabait kontrolperatu. Horra erlijioizunaren eta liturgiaren erritmoa, egutegi erlijiozkoa denboraren erritmoan erabat txertatuz.

Hori guztiori nahikoa normala eta aski ezaguna gertatzen zaigu. Ez du buruhauste berezirik sortzen, gizartearen erlijiozoko neurri bateko homogenotasuna dagoenean eta gizarte zibilaren eta komunitate erlijiozkoaren elkarrekiko onarpena dagoenean. Baina zer gertatzen da gizarte berean erlijiozko elkarte ezberdinak bizi direnean, bakoitza bere egutegiarekin?

Rosh Hashanah: Lehen ustekabea

Irailaren 11an iritsi nintzen Israelera. Iluntzean Jerusalem-era sartu eta bereziki judu ortodoxoen auzotik igarotzean, lehen harridura: jai-giroz jantzita, taldeka edo familiaka, mugimendu bizia ikusten zen sinagoga aldera. Igandea zen, eta ez juduen zapatua. Zer ospatzen zuten? Justu-justu juduen urte berriaren hasieran iritsiak ginon

Jerusalem-era. **Rosh Hashanah**= Urteburua deitzen diote Urteberriko jaiari. Bi egunez ospatzen dute urteburua.

Ustekabean, hasiera - hasieratik luralde honetako egutegiaren mundu nahasian sartuak geunden. Jakina, urtearen hasiera non ipini erabat arbitrarioa da; ez dauka inola urtarri-laren lehen egunean hasi beharri. Babiloniarrek eta pertsiarrek, esate baterako, udaberrian ospatzen zuten Urteberria; antzinako egyptiarrek, berriz, udan, Niloko urak handitzen hasten zirenean. Hebraiarrek, beraz, Udazkenean hasten dute urte berria, uztak bildu ondoren edo --besterik da, Exodo 12,aren arabera urtearen lehen ilabetea udaberriko **Nisan** izatea--. Islamiarrek, berriz, udan ospatzen dute Urteberria, Mahomet-en Hegira gogoratuz; aurten, gure abuztuaren 4ean hasiko dute urte berria, berari **Muharram** ilaren lehen egunean.

Urtea hasteko bezala, hilaren, astearen eta egunaren hasiera non ipini ez dago inolako lege naturalik. Horrela kristauon asteburua igandea den bitartean, hebraierrena larunbata da eta islamiarrena ostirala: hirurak daude indarrean Jerusalem honetan, Israel estatuaren asteko jaiegun ofiziala larunbata baldin bada ere. Eguna bera hebraierrentzat ez da hasten gauerdian, ezaguna denez, ilunabarrean baizik: eta horren arabera ospatzen dituzte larunbata eta jaiegunak.

Urtearen eta ilabetearen banaketa eta luzerak bereizten dituzte funtsean



Jerusalem-en bizi diren hiru erlijio-komunitate monoteista handiak: mundu islamiarrak ilargiari jarraitzen dio; juddaismoak eguzkiaren eta ilatgiaren erritmoei, bie; kristautasunak, berriz, --eta mendebaldeak orokorki-- eguzkiari. Kristau koptoek, ordea, beren egutegi berezia dute "Tut hilaren lehen egunean hasten dute urtea, aurten gure irailaren 11an.

Nahaspila handitxo, beraz hiri bereko gizartearen funtzionamendu ofiziala egutegi guzti horien arabera eratu behar balitz. Horregatik, erlijiozko komunitateek beren egutegiak jarraitzen badituzte ere, bizitza zibil eta ofizialerako denek dute egutegi bakarra: gregorianoa, alegia. Horregatik, gaurko **Jerusalem Post** egunkari juduak, **An-Nahar** egunkari arabiarak eta **Le Monde** paristarrak data berbera dakarte: 1989ko Urtarrilak 21.

Hala ere, arabiarrek badakar data islamiarra ere.

Adierazgarriak dira ni bizi naizen etxe honetan hartu ditugun bi agur-postalak lehengo urtearen azken aldera: bata Israelgo Erlijio-arazoan ministraritzatik, bestea Israelgo Bankuetako batetik. Batak dio: "*Season's Greetings and Best Wishes for the Coming Year*" besteak: "*Season's Greetings and Best Wishes for a Peaceful Year*" ... Funtsean biak berdin "*Urtesasoiko Agurra, eta Zorion Urtè Berrirako*". Adierazgarria benetan!

Kristo baino sei bat urte lehenago jaio zen Jesus

Titulutxo honek ez du zerikusirik arianismoarekin, eta bai egutegien gorabeherekin.

Ezaguna da, urteak kontzartzen hasteko abiapuntuztat halako gertakari historiko garrantzizkoren bat hartu izan dutela Herriek eta gizarteek. Jerusalem-en lau urte ezberdinetan bizi gara aldi berean: Hebraiarren "*Kreazioko*" 5749. urtean, Islamiarren Hegirako 1409. urtean, Egyptoko kristau koptoen 1705. urtean; eta, jakina, kristau gehienon eta mendebaldeko gizartearen 1989. urtean, Kristoren ondoko (K.o.ko) eraikoa.

Egia esan, Kristo aurretik (K.a./a.C./b.C.) eta Kristo ondoren (K.o./d.C./a.C.) urteak kontzartzeko sistema munduzabalera aski hedatua dago gaurregun, baita kristauak ez diren gizarte eta autoretan ere. Batzuk, hain zuzen ere, "*Common Era*" deitzen dute, seguruenik Kristoren erreferentzia zuzenekoa ez erabiltzearen; eta horrela ingelesez, esate baterako, B.C.E. (Era komunaren aurreko) eta C.E. (Era komuneko) siglak erabili ohi dituzte batzuk.

Dena dela, eta nahasketa handiagotzeko, Jesus bera ez zen orain dela 1989 urte jaio. Eusebio historigilearen okerreko kontaketatik, Kristoren Era Kristo bera jaio baino 6 bat urte beranduago hasi zen. Jesus bera K a. 6koa (edo 7koa) da, beraz.

Horrelako nahaspilan barkarriagoa da agian, orian dela urtebete pasatxo euskaraz argitaraturiko **Erlijio-Hiztegian**, Kristautasunari buruzko artikuluan (neronek idatzirikoa), bi data eman izana Jesusen jaiotzarako, eta biak okerrak. Nahasketa nondik sortua den ez dakidan aren, lerro hauek izan bitez baliagarriak, irakurleei barkamena eskatzeko eta nolabait okerra zuzentzeko.

Bost egutegitako Herri hau batean bizitzera behartua dago: Gertatz, gizarte zatikatuaren seinale gertatzen den hori, agian gizarte pluralistaren adierazgarri bihurtuz. Bitartean, egutegi "*ofizial eta zibil*" bakarraren barruan, erlijio-komunitateen bost egutegiak ez dira inola ere marginalak eta bitxikeria hutsezkoak, bizi-biziak baizik.

Paulo Agirrebaltzategi